

# KORRIKA 2024

• GOIERRIKO •  
**HITZA**

TESTUAK: KERMANGARRALDA ZUBIMENDI / AIMAR MAIZ

## EUSKARAZ HARRO

Bihar abiatuko da Korrikaren 23. edizioa. Irunen egingo ditu lehen kilometroak eta martxoaren 24an bukatuko da Baionan, tartean bi mila kilometroko bidea eginda. Goierritik azken aurreko egunean pasako da Korrika. Jendetza espero da, asteburua izanik.



HITZA



Beasaingo Udala

*Euskararekin korrika*

Martxoaren 23an  
Beasaindik 10:56an





# Herria harrotzeko garaia da

Korrikaren 23. edizioa bihar hasiko da, Irunen. Hamaika egun geroago, martxoaren 24an, Baionan bukatuko da. 2.700 kilometroko bidea egingo du lekukoak, zazpi lurraldeak pasata

Kantauri itsasoa ertzaren aurka harrotzen den moduan, euskal gizarteari ere iritsi zaio ordua. Bihar hasiko da 23. Korrika, Harro Herri lemapean. Erabateko ofizialtasun ezaren, euskaraz bizitzeko ezintasunaren eta hizkuntzaren aurkako oldarraldia-  
ren aurrean, «geure buruaz harro egoteko unea» dela diote Korrikako antolatzaileek. «Garaia da euskaraz bizi nahi dugula aho batez oihukatze».

Harro eta herri hitz-pareak Euskal Herri euskaldunaren ideia margotzen du: «Euskarak aurrera egingo badu, herriaren erabakitasunagatik izango da», esan dute. «Harro gara, bai, baina banakotasunetik urrun. Korrikak aukera bikaina ematen digu herria aktibatze eta aldarrikapen tinkoa egiteko, erakundeek pauso gehiago egin ditza-  
ten, herriaren gogoari erantzunda». Era berean, Korrikak batu egiten duela gaineratu dute, «komunitate baten parte sentiarazten duelako, ingurua mugitzen duelako eta euskarara jende gehiago hurbiltzen duelako». «Euskarak mugitzen du Korrika, eta Korrikak mugituko du euskal komunitatea».

Korrikaren antolatzaileen ustez, euskarak «gauza asko» behar ditu, baina, batez ere, aurrera egin nahi duen herria; «gaur egun ere, ezinbestekoa da euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea. Euskaraz bizi nahi badugu, herri gogo hori ezinbestekoa da».

Herritarren kontzientziazioan eta aktibazioan eragiteak AEKren ustez ez du esan nahi arduraren norbanakoen bizkar uzten denik, «edo aitzakia hori erabili behar denik egiturazko neurririk ez hartzeko». «Herritarren ahal-  
legin soila ez da aski euskararen auzia bideratzeko, erakundeek zeregin garrantzitsua dute euskararen normalizazioan, herritarren nahiari bidea eman behar diotelako». Hala, euskararen ezagutza unibertsala aldarrikatu dute, eta gogorazi AEKn horretarako ari direla lanean. «Euskal Herri osoan herritar guztiak euskaraz eroso bizi ahal izateko eskubidearen» alde, alegia. AEKk 23. Korrikan jasoko duen dirua Euskal Herri osoan euskararen normalizazioaren aldeko bere lana egiten jarraitu ahal izateko baliatuko du, baina eta hizkuntza-politika eta erreminta «ausarten» premia azpimarratu dute. «Doakoak eta guztiontzat, hezkuntza, transmisio eta helduen alfabetatze eta

## Azterketak Euskaraz taldea omendu dute

23. Korrikak gorazarre egin die baxoa eta brebeta euskaraz egiteko hiru hamarkadan baino gehiagoan borrokan aritu eta ari diren ikasleei.

Euskara da Azterketak Euskaraz kolektiboaren aldarria, Korrikarena bezalaxe. Ikasle horiei, beren bizitzako une erabakigarri batean, baxoa eta brebeta egiteko orduan, azterketek sortutako berezko ezinegonari beste zama bat inposatzen diete: ikasketetan erabili ez duten hizkuntzan aritzea, frantsesez alegia. Hala ere, herritar euskaldun gisa dagozkieen hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin eta egi-

ten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik, beren notetan kalteak onarturik.

Korrikak, aitortza honen bidez, haien egoera ezagutzera emateko bozgorailua izan nahi du. Korrikako arduradun Ane Elordik aipatu bezala, «Euskal Herri zabalean, eta hemendik kanpo ere, mundu guztiak jakin dezala gazte hauek, egun, ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori beren hizkuntzan egin; eta, bidegabekeria horren aurrean, pausoak ematen jarraituko dutela».

Hondarribiko (Gipuzkoa) Itsas Etxea Auditorioan egin zuten zeremonia, urtarrilean. Bertan izan zen Seaskako ikasleak.

euskalduntze tinkoak bermatze-ko».

## Egun osoko jaia

15:30ean hasiko da hastapen zeremonia. Behin mezua lekuko barruan sartuta, 16:00etan abiatuko da Korrika. Lehen kilometroa Bidasoako AEK euskaltegi-ko hamaika irakaslek egingo dute. Euskaltegi-ko zuzendari Beñat Alzagaren esanetan, «Lehen kilometro horrek islatuko du, alde batetik, euskaraz bizitzeko kementa; bestetik, Korrikak hauspo izan nahi duela Iru-

nen euskal duntze-lanak aurrera egiteko».

Hamaika eguneko bidaia izango da: 2.700 kilometro eta Euskal Herriko zazpi lurraldeak zeharkatuko ditu euskararen aldeko karabana. Tartean, Goierri-ko ere pasako da. Azken aurreko egunean gurutzatuko du eskualdea eta, bertatik, Baionara joango da. Han irakurriko dute eskuz esku bertaraino eramandako mezu ezkutua.



FOTOKOPIAK • PLANOAK • KARTELAK • PROIEKTUAK • DOKUMENTUAK • TESIAK



—KALITATE ONEKO—


INPRESIOAK

A0

NEURRIRA ARTE  
\* 840mm x 1.180mm

A4 - A3 - A2 - A1

Nafarroa etorbidea, 17 - BEASAIN Tel 943 88 94 82 / Faxe 943 88 60 44  
eguzkiinprimategia@gmail.com



MUJICA  
LIBURU DENDA

Kale Nagusia, 19  
Tel./Faxe: 943 88 11 94  
ORDIZIA



Goierriko Korrikako koordinatzaileak buru belarri ari dira herrietako eragileekin batera aurtengo edizioa antolatzen. Azken aurreko egunean iritsiko da lekukoa eskualdera, eta egun horretarako dena prest eduki behar da.

## Goierriin, azken txanpa

**H**amaika eguneko bidaia du aurretik Korrikako lekukoak. Hamargarrenean iritsiko da Goierri, azken aurreko egunean. Udanan behera, karabana 05:45ean iritsiko da Legazpira eta 12:42an joango da Legorretatik Tolosaldeara. Martxoaren 23a izango da, larunbata. AEKren euskararen aldeko ekimenak eskualdeko herri gehienak zeharkatuko ditu: Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio, Itsaso, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Segura, Idiazabal, Olaberria, Lazkao, Beasain, Ordizia, Itsasondo eta Legorreta. Handik, Baionara egingo du, 2.791 kilometroko ibilbideari amaiera emateko.

Aitor Aguado eta Ane Arrizabalaga dabilta koordinazio lanetan. «Gogotsu» daudela esan dute, baina «gogorra» ere badela ez dute ezkutatu: «Hasteko eta bukatzeko desiratzen nago», aitortu du Agirrezabalagak. «Tsunami baten modukoa da: Hila bete gutxitan kontzentratutako lan handia da», gaineratu du. Aguado Goierri beheko herrietako arduraduna da eta Arrizabalaga, Goierri garaikoena.

Herrika antolatzen diren batzordeen laguntza izaten dute. «Lekukoa eramango duten eragileak topatzea erraza da. Batzordeak eratzea da zailagoa»,

egin du alderaketa Aguadok, baina jasotako erantzunarekin «pozik» daude. Herri guztietan eratu dira komisioak. Baita Urretxu-Zumarragan ere. Lehen aldia da han halakorik antolatzen denik. Halere, oro ez da urre eta Aguadok gazteak interpelatu ditu: «Herrietako batzordeetan betiko jendea dabil eta erreleboa eskatzen ari dira. Gazteak behar ditugu batzordeetan. Aurpegi berria eskertuko liratzeko».

### 160 kilometro

Arrizabalagak azpimarratu du Korrika hasi bezperan sentsazioa «oso ona» dela: «Ibilbideari dagokionez, topera dago. Ez da orratz bat ere kabitzen. Jende asko-askok hartu du parte». Goierri behean ere kilometro erosle «pila bat» agertu direla dirrela konatatu du Aguadok. «Aurten duela bi urte baino hotzago hasi zen salmenta. Korrika lehenago ere bada, Gabonetatik eta Inauterietatik gertuago. Baina otsaila bukaeran eta martxoa hasieran abiada hartu eta kilometroak baino eragile gehiago agertu dira».

Denei tokia egiteko, erreleboak egokitu egin behar izaten dituzte. Goierriin, denera, 160 bat kilometro egingo ditu Korrikak. Denen gustura egitea ezinezkoa denez, pazientzia eta ulermena eskatu dute.



Azkoitia eta Urretxu-Zumarraga arteko bidegorritik barrera iritsi zen Korrika duela bi urte. HITZA

Kilometroen salmeta AEK-ko Euskaltegietan diru iturri garrantzitsuenetariko bat da. Baina laguntzeko beste bide batzuk ere badaudela gogorarazi dute bi koordinatzaileek. Korrika Laguntzaile bilakatzea eta materia-

Arrizabalagak ez du baztertu etorkizunean Goierri garaian beste denda fisiko bat zabaltzea. AEK-k Ezkion, Legazpin, Urretxun eta Zumarragan egoitzarik ez duenez, Korrikarik ez dagoen urteetan lanketari jarraipena

Aguadorentzat bigarren aldia da Korrikako koordinatzaile lanetan. 22. edizioan zein 23. nean, ingurukoak «gogo handiarekin» nabaritu ditu. «Polita da ikustea urtez urte ilusio bera edo handiagoa pizten duela». Korrikaren aitzakian, bestelako hainbat ekintza antolatu dira herri gehienetan.

Arrizabalagak eta Aguadok ezingo dute korrikarik egin. Furgonetaren aurretik bidea zabalduz joaten den autoan joango dira, txandaka, kopilotu, Korrikaren ibilbidea erakutsiz. Are, Arrizabalagak bi bider egingo du lan: martxoaren 20an, goizeko ordu txikietan, Aizarnazabaldik (Gipuzkoa) barrera iritsiko da lekukoa bere eskumenetako eremura; Bizkaian aurrera eta atzera ibili ostean, berriz itzuliko da Gipuzkoara. Debagiena zeharkatu ostean iritsiko da Goierri. Korrikaren iritsiera ikustek sortzen dituen emozioak bi aldiz gozatzeko aukera izango du.



«Lekukoa eramango dutenak topatzea erraza da. Batzordeak eratzea da zailagoa»

**Aitor Aguado**  
Goierri beheko koordinatzailea

la erostea. Online zein Beasaingo Herri Dendan eros daitezke petoak, elastikoak, motxilak, banderak.... «Salmenta oso ondo joan da eta ia material dena agortu zaigu», aipatu du Aguadok.



«Ibilbidea topera dago. Ez da orratz bat ere kabitzen. Jende askok hartu du parte»

**Ane Arrizabalaga**  
Goierri garaiko koordinatzailea

ematea zailagoa dela arrazoitu du; dena dela, aurre berak hartu du eremu honetako ardura, azkoitiarra izan arren. Jarraipena eman nahiko lioke, Korrika pasatakoan giroa ez dadin itzali.





# MARGOGAI.com

Pinturak  
Tresnak  
Dekorazioa, industrial  
Makineria

Lazkaibar 1-1 BEASAIN  
Tel./faxes: 943 88 22 93 - lazkaibar@margogai.com





Ibilbidea

158

KILOMETRO GOIERRIN


Korrikako lekukoa 2.270. kilometroan sartuko da Goierriara. 2.428. kilometroa izango da eskualdeko azkena.

**Etorrera.** Udantatik behera, Legazpin sartuko da Korrika, larunbateko ordu txikietan.

**Irteera.** Eskualdean barrena ia sei orduz ibili eta gero, Legorretatik barrena joango da.

TOKIA	ORDUA	TOKIA	ORDUA	HERRIA	ORDUA	HERRIA	ORDUA
• Udanako gaina (Legazpi)	05:44	• Santa Luzia (Ezki)	07:31	• Arimasagasti (Idiaz.)	09:34	• Esteban Lasa (Bea.)	11:20
• Telleriarte (Leg.)	05:58	• Ezkioko herrigunea	07:37	• Idiazabalgo herrigunea	09:53	• Nafarroa (Beasain)	11:25
• Mirandaola (Leg.)	06:05	• Alegia (Itsaso)	07:44	• Errota (Idiazabal)	10:06	• Ezkiaga (Beasain)	11:30
• Legazpiko herrigunea	06:12	• Gabiriako herrigunea	08:03	• Iñauti (Idiazabal)	10:10	• Urdaneta kalea (Ordizia)	11:33
• Kale Nagusia (Leg.)	06:19	• Zuazola (Gab.)	08:10	• Ihurre (Olaberria)	10:19	• Joseba Rezola (Ord.)	11:37
• Urola Kalea (Leg.)	06:25	• Korta (Gab.)	08:16	• Olaberriako herrigunea	10:31	• Buztuntza (Ordizia)	11:43
• Suhiltzaileak (Leg.)	06:32	• Ugarana Goikoa (Gab.)	08:23	• Lazkaoko sarrera	10:39	• Zuhaiztia (Ordizia)	11:48
• Elbarrena (Leg.)	06:38	• Ugarana Behekoa (Gab.)	08:29	• Lazkaoko herrigunea	10:45	• Joseba Rezola (Ord.)	11:52
• Aparizio (Urretxu)	06:41	• Ormaiztegi (Bidegurutzea)	08:36	• Hiribarren (Lazkao)	10:50	• Geltokia (Ord.)	11:55
• Kaminpe (Zumarraga)	06:45	• Lierni (Mutiloa)	08:49	• Senpere (Beasain)	10:54	• Otegi-Enea (Ord.)	12:01
• Artiz (Zum.)	06:52	• Mutiloako herrigunea	08:55	• Zaldizurreta (Beasain)	10:58	• Aramako bidegurutzea	12:07
• Labeaga (Urretxu)	06:58	• Zeraingo herrigunea	09:04	• Gipuzkoa plaza (Bea.)	11:01	• Itsasondoko herrigunea	12:11
• Elizkale (Zumarraga)	07:05	• Otatza (Zerain)	09:07	• Oriamendi kalea (Bea.)	11:05	• Bidegain (Itsasondo)	12:17
• Eitzaga (Zum.)	07:11	• Segurako sarrera	09:15	• Igartza Oleta (Bea.)	11:10	• Papertegia (Legorreta)	12:27
• Berroeta (Zum.)	07:18	• Segurako herrigunea	09:19	• Geltokia (Bea.)	11:15	• Legorretako herrigunea	12:33
• Ezkioko industriald.	07:24	• Goardia	09:29	• Kale Nagusia (Bea.)	11:18	• San Migel (Legorreta)	12:37

GOIERRIKO HITZA  
Asteazkena, 2024ko martxoaren 13a



GOIERRIKO HITZA  
Asteazkena, 2024ko martxoaren 13a



Gabiriarrak 2022ko apirilaren 8an, orain hurreneko 22. Korrikan. Bi kilometro hartu zituzten orduan; aurten, zazpi. HITZA


Orain arteko lau hamarkadetan lehenago sekula zapaldu gabeko bideak ibiliko ditu 23. Korrikak, martxoaren 23an. Gabiriako kaskotik igaroko da, herria zeharkatzeko.

# Gabiria gaineratik lehen aldiz

**G**auzak nola diren: Korrikak, 1980ko lehenengo ekitaldi hartan, ia-ia abiatu orduko zapaldu zuen Goierri. Baita Gabiriako lurak ere, Zumarragatik Ormaiztegi-rantz, Alegiako ibarrean. Baina 44 urte behar izan ditu, aurtengo ekitaldi hau heltzea, herri kaskoraino iristeko.

Bi kilometro besterik ez daude –aldapan gora, hori bai– Altzibar baseritik herrigunera, eta handixe hartuko dute kaskorantz. Espazialki desbideratze txiki bat denak gabiriarentzako jauzi espeziala suposatuko du: Korrika lehenbiziko aldiz pasatuko da Gabiriako gaineratik.

Martxoaren 23an, larunbata, Ezkioko eta Itsasoko behe bailararik sartuko da euskararen aldeko bi urtean behingo lasterketa, *Harro herri* lelopean, Gabiriara, Lizaratzu aldetik. Errepide nagusian metro batzuk egin, eta Altzibarren eskuinera hartuta abiatuko da herrigunerantz, 07:50 inguruan.



Korrikaren ibilbidea Gabirian.

**Egitaraua Gabirian**

- MARTXOAK 22, OSTIRALA**  
11:30. Korrika Txikia, haurrentzat, herrigunearan.
- MARTXOAK 23, ZAPATUA**  
07:50. Korrika iritsi Altzibarren.  
08:05. Korrika kaskoan.  
Gero. Txokolatea, Osinalden.  
10:00. Kalejira herriko txistulariekin eta erraldoiekin, plazara.  
Gero. Goruntz taldearen dantza saioa eta ume jolasak.  
14:00. Bertso-bazkaria Aztirian.

Maldaren errukirik gabe markatuko du eritimoa 23. Korrikak. 08:05erako gainean egoteko aurreikuspena dute.

**Inoizko babes onena**

Orain arteko lau hamarkadetan ez bezala mugitu dira, mugitu ere, gabiriarrak. Gabiriako lurretan 7 kilometro egingo ditu Korrikak, eta beste horrenbesteko babes eskatzen du, bai sustenguz, bai lasterkari kopuruz, eta bai kilometroak erosteko.

«Herriko espektatibak altu bete dira, erabateko laguntza eta prestutasuna izan dugu jendearen aldetik», azaldu du Korrika Batzordeko kide batek. Korrika denda jarri dute zenbait astetan, hainbat bilera egin dituzte, egitarau bat prestatu dute 22rako eta 23rako, eta kilometro erosle nahikoa –AEKren jarduera mantentzeko ezinbesteko diru iturria da Korrika– lortu dituzte.

Kilometroa erosi duten erakunde, elkarte eta partikularrek inoiz baino gehiago dira aurten: Gabiriako Udala, Goruntz dantza taldea, Osinalde elkarte, Makilariak guraso elkarte, Baztarrika gaztandegia eta Gabiriako Ostatuak oso bana erosi dute; Leharrei mendi lasterketa eta Gabiriako Gazteak taldeak erdia.

**1982an, Kamino Zaharrean**

Herrigunetik lehen aldiz bai, baina Gabirian lehenago distantzia luzeagoa egin da Korrika. 1982ko maiatzaren 26an, Legazpitik Ormaiztegiara Kamino Zaharrean barrena joan zen (10 bat kilometro). Harrezkero ez da gehiago igaro Gi-3540 bidean.

2017ko Korrikan, Aztiria euzagutu zuen lehenengo aldiz euskararen lasterketak, apirilaren 8an. Bi aldiz igaro zen herri lurretan, egun hartan: goizaldeko 02:30ean Zumarraga-Ormaiztegi bidean, eta goizean Zeraindik Legazpira, Aztiria zeharkatuta.

*Harro herri* ezezik, herritarrek ere harro izango dira aurten.

**Zuzenki**  
AHOLKULARITZA  
fiskala • juridikoa • kontablea • laborala

943 16 23 93  
600 374 754  
zuzenki@zuzenki.eu

Hirigoien, 7 LAZKAO  
www.zuzenkiholkularitza.eus

Seguratik martxoaren 23an, larunbatean, 9:17an.

23.korrika

HARRO HERRI

Segurako Udala

ARANDIA GARAJEA MULTIMARKA

ESEKIDURAK  
PNEUMATIKOAK  
BIRPROGRAMAZIOAK  
POTENTZIA TXIPAK

www.arandiagarajea.com

N-1, 2/g OLABERRIA  
943 88 09 47

Ordiziara martxoaren 23an larunbata, 11:34ean iritsiko da Beasaindik

ordizia bizi herria

23.korrika

HARRO HERRI

23.korrika

HARRO HERRI

Legorretako Udala



'Harro herri' du izena 23. Korrikaren abestiak. Maite Arroitauregi 'Mursego'-rena da abestia, baina hainbat goierritarren laguntza izan du. Kau Kori Kura eta Garazi Zabaleta prozesuaren parte izan dira.

# Goierritar doinuekin, dantza eta korrika

**M**aite Arroitauregi *Mursego* musikari eibartarrak egin du 23. Korrikaren abestia. *Harro herri* izena jarri dio, aurtengo edizioaren leloarekin bat. Dena dela, bere sinadurapean joan arren, atzean talde lana dago. Hainbat goierritarren izenak ageri dira hor: Kau Kori Kurako Mikel eta Olatzena eta Garazi Zabaletarena.

Kau Kori Kura taldeko Mikel Aizpuruak ekoizpenean, ahotsetan, midietan hartu du parte. Zabaletak, berri, partiturak idatzi ditu.

«Mursegorekin lehendik ere kolaboraziorik eginda geunden. Horrela iritsi zitzaigun eskaria», gogoratu du Aizpuruak. Zabaletak ere kontatu du Mursegoren eta bere arteko lagun baten bizidetz jaso zuela enkargua.

Biek aipatu dute «ohorea» dela Korrikaren tamainako ekitaldi bati musika jartzea. «Pila bat entzun behar den abestia da eta denok dugu iritzia. Presioa ere bada». Zabaletari ere bertigoa eman zion hasiera batean kontatu duenez, baina azkenerako arin eta gustura egin duela lana aitortu du.

Emaitzarekin oso gustura daude. Korrika gerturatu ahala, geroz eta gehiago entzungo dela espero dute. Biak irakasleak dira eta ikasleekin ere landuko dutela iragarri dute.



Maite Arroitauregi 'Mursego', bideoklipeko hainbat lagunekin. H.

Arroitauregik abestia aurkezterakoan esan zuen berak egindako lanen artean desberdina iruditzen zaiola, gutxi baitira enkarguz egindako lanak: «Horrek geure buruari muga batzuk jartzera eraman gintuen, baina ho-

## «Pop-barroko» erako kantua da egilearen ustez. Emaitzarekin gustura daude

rrelako kantuekin egon ohi diren inertzia edo ohiturak kolokan jartzera ere bai: Korrika egiteko ez dago modu bakar bat, ez dago kanta bakar bat; bideak baditu gorabeherak eta bihurtu-neak».

Halaber, Arroitauregik adie-

razi du kantuak sei edo zazpi zati dituela, kantaren barruan hiru kanta daudela eta «minisintonia moduko zerbait». Horiek horrela, kantu «berritzailea» iruditzen zaio: «Atea zabaldu diegu accele-randoei, disonantziei, kaos modukoei, keinuei... Eta hainbat kantariren artean abestia egon arren, apenas inor ez nabarmentzeari, masa bat irudikatzeari».

Estiloari erreparatuta, berri, «pop-barroko kantu bat» atera zaiela uste du: «Letratik abiatu ginen pop kantu bat egiteko, eta behin hezurdura eta melodia nagusia argi samar genituenen hasi ginen konponketak proposatzen eta jolasten, askotariko ideiak botatzen eta eztabaidatzen, %100 ados egon garen arte».

## HARRO HERRI

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Harro herri  
Hona gu euskaldunak  
Euskararen lagunak  
Hats eta izerdi

Herri harro  
Sarean ta kalean  
Bihotza pil-pilean  
Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Lurrarekin batera  
Jira eta bira

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Euskararen sarea  
Ez da eroriko

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Hizkuntzak hitzunean  
Aberasten dira

Ku kukulumuxu  
Ko-ko kokoriko  
Algara batean  
Edo afoniko

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Ahoa bizi-bizi  
Prest belarriak  
Eskuz esku heldurik  
Lehertu ezarriak

Argazki bat ipini  
lasterka egina  
Bihotz, muxu, irrintzi  
Nik bai eragina!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Lurrarekin batera  
Jira eta bira

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Euskararen sarea  
Ez da eroriko

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Hizkuntzak hitzunean  
Aberasten dira

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Algara batean  
Edo afoniko

Onlineko txatean  
Ez zirri ez mirri  
gorputzen epelean  
ikimilikikirri

Esku bat nirea  
Bestea zurea  
Eman bostekoa  
Izan dadin gurea

Ikasten bazabiltza  
Egin gurekin  
Elkar ulertu arte  
Ekin ta ekin

Hizkuntzak ikastera  
Bagoaz kanpora  
Zergatik ez herrian  
Euskara ahora

Harro herri korrika... (x2)

Ez badigute ematen,  
arrazoia guri  
Su emango diogu,  
haien legeari

Bideoklipa ikusteko,  
eskaneatu QR kode  
hau sakelakoarekin:



**oreka**  
fisioterapiaren zentrua

Ainitze Jauregi  
Kol. zkia. 179

- ERREHABILITAZIOA
- MANTENU TRATAMENDUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- KIROL MASAJEA
- LUNBALGIA ETA ZIATIALGIA
- DRENAJE LINFATIKOA

LARDIZABAL KALEA 3, Behea SEGURA Tel.: 943 80 02 88 / 646 32 94 79

Ongi etorri Goierri!

23. korrika

**HARRO HERRI**

SASIETA  
MANKOMUNITATEA

www.sasieta.eus

**naust** hartz klinika  
1998tik

Tel. 943 88 46 28  
Joan Iturralde 3 behea  
Beasain



# Agenda

## Korrika festak

### Altzaga

**Martxoak 14.** 18:00. Pintxo jana, Ertoetxen; 19:00. Bizkarsoro film emanaldia, Ertoetxen.

**Martxoak 23.** 13:00. Triki poteoa Itsasondotik zehar. 14:00. Altzagako, Aramako eta Itsadondoko herrien arteko bazkaria, Itsasondoko frontoian

### Arama

**Martxoak 15.** 20:00. Kantu poteo eta afaria, Jon Zubeldiarekin, Arrikutz elkartearen.

**Martxoak 22.** 17:00. Korrika txikia, Aramatik Itsasondora.

**Martxoak 23.** 13:00. Triki poteoa- Itsasondotik zehar. 14:00. Altzagako, Aramako eta Itsadondoko herrien arteko bazkaria. Itsasondoko frontoian

### Ataun

**Martxoak 22.** 14:30. Korrika Txikia. San Martingo plazan eta auzoan buelta bat eman ondoren, eskolara joango dira, bertan mokadutxo emango delarik.

### Beasain

**Martxoak 21.** 10:30. Korrika Txikia. Plazan amaituko da dantza eta mezuaren irakurketarekin; 18:30. Peto banaketa eta argazkia Kilometro erosleekin. Zubimuzun; 19:00. Bizkarsoro dokumentala, Usurbe Antzokian.

**Martxoak 23.** 10:00. Harro herri koreografia dantza taldeek antolatutako dantzarekin batera, Loinazko San Martin plazan; 10:50. Korrikari ongi etorria biribilgunean; 12:00. Buruhandiak eta txistulariak, Loinazko San Martin plazatik; 12:30. Bertso poteoa, plaza azpitik; 14:30. Bazkari herrikoa (Plazapen). Bazkalondoren, musika; 19:00-21:00. Poteoa Txorongo txarangarekin, plaza azpitik.

## Irudia Legorreta



## Dantzarien III. topaketa

Korrika kulturalaren barruan, Goierriko Dantza Taldeek III. Topaketa egin zuten martxoaren 9an, Legorretan. 2019an egin zuten aurrenekoz, Lazkaon, eta eskualdeko zazpi herritako taldeak elkartu ziren; Idiazabalen egin zuten bigarren topaketa. Aurtengoan eskualde osoko 200 lagun elkartu ziren dantzara. IÑAKI GURRUTXAGA

### Ezki-Itsaso

**Martxoak 22.** 15:15. Korrika Txikia.

**Martxoak 23.** Korrika ofizialaren ondoren, gosaria.

### Itsasondo

**Martxoak 15.** 18:30. Emakume gazteak eta musika solasaldi eta emanaldia Ianire Aranzabe, Esti Markez eta Eider Saez, Bizi Nahi elkartearen.

**Martxoak 22.** 18:00. Askaria eta jolasak, frontoian.

**Martxoak 23.** 13:00. Triki poteoa- Itsasondotik zehar. 14:00. Altzagako, Aramako eta Itsadondoko herrien arteko bazkaria. Itsasondoko frontoian

### Lazkao

**Martxoak 14.** 16:30. Jolasak, Maizpide eta Gerriko Kultur Elkartearen eskutik.

**Martxoak 22.** 15:00. Korrika Txikia (San Benito ikastola): DBH eta Batxilergoa 13:00etan eta HH eta LH 15:30ean, Ikastolako Korrika Festa plazan; 19:00. Taloak, JTK Lazkaun taldearen eskutik; 19:00. Jundajo txaranga; 21:00. Muxutruk erromeria

**Martxoak 23.** 09:30. Lazkaoko

Joaldunak, JTK Lazkaun taldearen eskutik; 10:30. Txokolatada plazan, San Benito ikastolaren eskutik; 11:30. Lazkaoko Buruhandi eta Erraldoiak, Antzar konpartsaren eskutik; 14:30. Herri bazkaria eta bazkal ondoren kantuan Garazi eta Sala. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira udaletxean martxoaren 1etik 15era bitartean; 17:00. Jolasak, Zaguperen eskutik; 20:30. Zezen suzkoa.

### Legazpi

**Martxoak 15, 16 eta 17.** 17. Logela ihes gela, Legazpiko Azoka inguruan.

**Martxoak 15.** 17:00. Sustraiak dokumentala, Kultur Etxean.

**Martxoak 16.** 17:00. Sorgintxulo antzerkia umeentzat (LH1-LH6), Euskal Herria Plazan; 19:30. Kanpora sartzan antzerkia, Latxartegi Aretoan.

### Legorreta

**Martxoak 15.** Gaztetxean futbol txapelketa eta Aldapa Haundin mus txapelketa.

**Martxoak 16.** Korrikako dokumentalaren proiektzioa eta jolasak.

**Martxoak 22.** Korrika Txikia.

**Martxoak 23.** Korrika ofizialaren ostean, bazkaria eta Legorregae jaialdia. Korrikaren aldeko diru bilketa gauzatzeko zozketaturiko produktuen banaketa ere burutuko da.

### Olaberria

**Martxoak 22.** Korrika Txikia, herrigunean zehar. Iluntzean, bertso afaria.

**Martxoak 23.** Gazte Festak. 12:00. Pintxo potea trikitixarekin. Arratsaldean. Sagardo dastaketa eta elektrotxaranga. Afaria. Gauean: Raimundo eta Triki-dantza

### Ordizia

**Martxoak 13.** 17:30. Triki-poteoa. Irteera, euskaltegitik.

**Martxoak 15.** 17:30. Haurren mural eraketa.

**Martxoak 20.** Korrikapotea, herriko tabernetan.

**Martxoak 21.** 18:30. Ttipi-Tapa bakarrizketa, Barrenan.

**Martxoak 22.** 10:30. Korrika Txikia. Eguraldiak utziko balu, Barrrena parkean amaiera; 18:00. dantza saioa; 18:15. Banda Txikiaren kalejira; 19:00. Kantazak, kalleetatik kantari.

**Martxoak 23.** 11:00. Burrunbazale txaranga, erdigunean zehar; 11:30. Korrika ofiziala; ondoren, Burrunbazale kalez kale plaza-runtz; 13:00. Pintxoak plazan.

### Ormaiztegi

**Martxoak 21;** 15:00. Korrika Txikia eskolatik abiatuta; Ondoren. Guraso elkarteak antolatuta, malabarismo ikastaroa. 2€ haur bakoitzeko eta irabaziak korrikarentzat izango dira. Korrikako materiala zozketatuko da guraso elkartearen kideen artean.

**Martxoak 23.** 08:00. Beroketa eliza atarian; Korrika ofizialaren ondoren, txokolate jana.

### Segura

**Martxoak 22.** Korrika txikia. Ondoren txokolatada plazan; 17:00. Buruhandiak eta patata

tortilla lehiaketa; 17:00-20:00. Iñigo Etxenike giroa girotzen.

**Martxoak 23.** Korrika ofizialaren ondoren, txokolatada.

### Urretxu-Zumarraga

**Martxoak 15.** 17:00. Ekidaren Plaza hau gurea da. Labeaga aretoan.

**Martxoak 18-19.** Ederrena Pilotalekuan Herri Kirolak, DBH3koentzat (Iparragirre, La Salle eta Lizeoa).

**Martxoak 22.** 22:00. Bertso musikatua, gaztetxean.

**Martxoak 23.** 08:00. Gosaria Areizaga-kalebarrenen: txokolatada;

09:00. Partaideen argazkia Areizaga kalebarrenen; 11:00. Jolasak Zelai-Aritzin eguraldi onarekin, txarrarekin Trintxeran; 12:00.

Erraldoi eta dultzaineroak eguraldi onarekin; 13:00. Txorotxaranga Areizaga-Kalebarrenen; 14:30. Bazkaria, eguraldi onarekin, Areizaga-kalebarrenen, eguraldi txarrarekin, Ederrenan; 17:00. Joseto eta Alaiak; 19:00. Martxoan Bertsoako finala, gaztetxean; ondoren, Zatekeen erromeria, Gaztetxean

### Zaldibia

**Martxoak 14.** 12:00. Korrika txikia, eskolatik abiatuta.

**Martxoak 22.** Porrika, Korrikako porra; 17:30. Korrika mahaia, plazan; 22:30. Zopa antzezlan, antzokian.

**Martxoak 23.** 12:00. Autobusez Ordiziara.

### Zerain

**Martxoak 22.** Goizean. Korrika Txikia, Segurako biribilguneraino jaitsiko dira eta han Segurako eskolari lekukoa eman eta denak batera, Seguratik barrena; 19:00. Oihaletxe dokumentala eta mokadutxo.

**Martxoak 23.** Korrika ofizialaren ondoren, txokolatea Liztormendi elkartearen; 11:00. Txoritegi-Barbari mendi buelta; 14:30. Frontoian bazkaria; bazkalostean, jolasak.

**Loinaz KAFEAK**

ORAIN KAPSULETAN ERE BAI !!

San Inazio, 14 **Beasain**  
943.885128  
Zubierreka industrigunea 53, **Lazkao**

**ZEGAMAOKINDEGIA**

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

23.korrika

**HARRO HERRI**

LEGAZPIN ERE EUSKARAREN ALDE,  
LEGAZPIKO UDALA



# TAUPADAK, IRRIBARREAK ETA EMOZIOA

Furgoneta gerturatzeko ari deneko urduritasun puntu hori, bozgorailuko musika eta animo oihuak, irribarreak jendearen aurpegietan. Korrikak irudi ederrak uzten ditu iristen den aldiro.



Legazpiarrek Urretxun eraman zuten lekukoa 2022an.



Ezkio-Itsasoko haurrak, lekukoarekin.



Lazkaoko erdigunean.



Goierriko Hedabideetako harpideak, lantaldeko kiden babesarekin, lekukoa eramaten.



Ataundarrak, Senperen.



Ordiziako suhiltzaileak ere korrika.



Itsasondoar bat, pozarren, lekukoarekin.



Duela bi urte ere Legorreta izan zen azken herria.

Zumarraga-Urretxun: martxoaren 23an larunbata, goizeko 6:45 eta 7:00 bitartean

**23.korrika**

**HARRO HERRI**

**Irundik Baionarat**  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Zumarragako Udala

**23.korrika**

**HARRO HERRI**

**KORRIKA TXIKIA. Martxoak 21, osteguna**

**15:00etan Ibilbidea.** Ibilbidea errepidetik: San Andres herri eskola, Gabirialde, Zumarralde, Zumalakarregi, San Andres eta eskolara buelta Gabirialdetik.

**17:00etan Zubipe Kiroldegian.** Ekain malabaristan saioa. Sarrera 2€\* Saioaren amaieran KORRIKAKo materialaren zozketa San Andres Herri Eskolako Guraso Elkarteko kideen artean.

\*Bildutako dirua KORRIKARENTzat izango da.

**ORMAIZTEGIARREK ERE KORRIKA EUSKARAREN ALDE!**

**23.KORRIKA. Martxoak 23, Larunbata**

**08:00etan** Eliz-atarian beroketaldia musikarekin.

**08:30ean** ORMAIZTEGIRI DAGOKION KORRIKALDIA. Beheko errota inguruan hasi eta Mutiloako sarreraraino (KORRIKA beheko bidetik pasako da).

**09:15ean** Eliz-atarian txokolatea bizkotxoarekin\*.

\*Bildutako dirua KORRIKARENTzat izango da.

ORMAIZTEGIKO UDALA

**urrats**  
PODOLOGIA ZENTROA

MIREN ALVAREZ JUARISTI

943 72 52 23  
labeaga 31 - URRETXU  
www.urratspodologia.eus